

# Genero indarkeriaren aurrean babesteko neurriak jasotzen dituen 1/2004 Lege Organikoa

(The Organic Law on measures of integral protection against gender violence)

GARMENDIA IARTZA, Koro

Eusko Ikaskuntza  
Miramar jauregia. Mirakontxa 48  
20007 Donostia  
eleria@eusko-ikaskuntza.org

BIBLID [1137-1951 (2005), 14; 97-106]

Sarrera eguna: 2005.06.13  
Onarpen eguna: 2005.09.05

## 2

2004ko abenduan, genero indarkeria prebenitu eta biktimei laguntza emateko neurriak jasotzen dituen Lege Organikoa onartu zuen espainiar Kongresuak, aho batez. Gizartean alarma gorria piztuta daukan gai honi aurre egiteko asmoz, esparru ezberdin ugaritan eragiten duten berrikuntzak ekarri ditu araudiak, iragarkien mundura zuzendutako xedapenak eta organo administratibo berrien sorrera tarteko.

**Giltza hitzak:** Genero indarkeria. 1/2004 Lege Organikoa. Biktimak

## E

En diciembre de 2004, el pleno del Congreso español aprobó, por unanimidad, la Ley Orgánica de medidas de protección integral contra la violencia de género, con el fin de erradicar un hecho que ha encendido la alarma roja en la sociedad. La normativa introduce novedades que inciden en diversos ámbitos, incluyendo disposiciones dirigidas tanto al mundo de la publicidad, como a la creación de nuevos órganos administrativos.

**Palabras Clave:** Violencia de género. Ley Orgánica 1/2004. Víctimas.

## E

En décembre 2004, la Séance Plénière du Congrès espagnol a approuvé à l'unanimité la Loi Organique de mesures de protection intégrale contre la violence de genre, afin d'éradiquer un fait qui a déclenché l'alarme rouge dans la société. La réglementation introduit des nouveautés qui ont une incidence sur divers domaines, y compris des dispositions adressées aussi bien au monde de la publicité qu'à la création de nouveaux organes administratifs.

**Mots Clés:** Violence de genre. Loi Organique 1/2004. Victimes.



---

1. **Sarrera eta kokapena.** 2. **Lege Organikoaren helburu nagusiak.** 3. **Genero indarkeriaren aurrean sentsibilizatu, prebenitu eta hautemateko neurriak:** 3.1. Hezkuntza. 3.2. Publizitatea eta hedabideak. 3.3. Osasun arloa. 4. **Biktimen eskubideak:** 4.1. Informazioa, gizarte laguntza eta dohaineko laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea. 4.2. Laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak. 4.3. Eskubide ekonomikoak. 5. **Erakundeen babes.** 6. **Babes penala.** 7. **Babes judiziala:** 7.1. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak. 7.2. Biktimen babes eta segurtasunerako neurri judizialak. 7.3. Emakumearen aurkako indarkeriaren Fiskala. 7.4. Xedapen gehigarriak. 8. **Ondorio gisa.**

---

## 1. Sarrera eta kokapena

Azken urteotan, giza duintasun, berdintasun eta askatasunari muin-muinean eragiten dien gertaera lazarriak berriak azaltzen ari zaizkigu hedabideetan, edozein alderditatik begiratuta ere, deitoratzera ez ezik, neurriak hartzera behartzen gaituztenak. Genero indarkeriaz mintzo gara. Zenbaitetan heriotza eragiteraino iristen diren eraso hauek egunerokotasunean murgildu zaizkigu ia; ez ezohiko gertakariak izanagatik, baizik eta aspaldidanik eman den egoera larri honi begirada zorrozki zuzendu diolako gizarteak oro har.

Argi dezagun, aurrera jo baino lehen, "genero indarkeria" kontzeptuarekin zer adierazi edo ulertzen den zehazki. Labur esateko, emakumearen aurka zuzendutako indarkeriaren agerpen oro izango litzateke. Kontzeptu honen inguruan, hala ere –tamalez fenomeno hagitz hedatua izaki–, definizio landuagorik ere eman da. Zuzen eta argigarria da, besteak beste, Europako Kontseiluak luzatutakoa, oinarritzat hartuz hala Nazio Batuen Erakundeak emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko 1993ko Aitorpenean jasotakoak, nola 1995ean Beijing-en (Txina) Emakumeari buruzko IV. Mundu Biltzarrean eraturako Plataformak zehaztutakoa:

"Genero indarkeria, emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoak eragiten dizkion edo eragin diezazkiokeen edonolako indarkeria mota dugu. Genero indarkeriaren agerpenak dira, halaber, emakumea arlo publiko zein pribatuan mehatxatzea, hertsatzea edo bere askatasuna murriztea. Honenbestez, anitzak dira emakumearen aurkako indarkeria aurkezteko modu eta inguruabarrak".

Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoak, bestalde, emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan 2004ko urtarrilean prestatutako Ezohiko Txostenean<sup>1</sup>, zera jaso zuen: "emakumezkoa iza-teagatik beraren aurka egindako indarkeria mota guztiak genero indarkeriatzat jotzen dira".

Hortaz, bortxakeriaren milaka aurpegien arteko bat dugu genero indarkeria. Ekintza bera gogorra izaki, ez dira batere arinak bere ondorioak. Arbuio eta kezka gehien eragiten duten kasuak heriotza eragiteraino iristen direnak izan arren, Osasunaren Mundu Erakundeak 2002ko urrian argitara emaniko txostenean jaso zuenaren arabera, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek galdu egiten dute beren autoestima eta gizartean moldatzeko gaitasuna. Eta erruz ugaritzen dira depresioak, min kronikoak zein gaixotasun psiko-sozialak emakume hauen artean. Indarkeria horren lekuko diren haurrek, berriz, arazo emozionalak garatzeko arriskua izaten dute.

*Instituto de la Mujer* erakunde espainiarrak luzatutako datuek erakusten dutenaren arabera, espainiar Estatuan gora egiten ari dira emakumeen aurkako indarkeria kasuak. Edo, behintzat, biktimek salatu eta argitara ateratzen dituztenak. Izan ere, 2002an 6.065 kasu eman ziren, 2003an 6.191 eta 2004. urtean 6.825<sup>2</sup> –aipatzekoa da uda partean jazozen direla gehien-gehienak, uztailean eta abuztuan–. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, berriz, genero indarkeria jasan zuten emakumeek egindako salaketak 274 izan ziren orotara iazko urtean<sup>3</sup>; hauetatik 50 Araban, 136 Bizkaian eta 88 Gipuzkoan. Nafarroan, berriz, 61 izan ziren 2004an, eta 46 aurreko urtean.

Genero indarkeriak aurrez aurre egiten du talka askatasunarekin, berdintasunarekin, bizitzeko eskubidearekin, segurtasunerako eskubidearekin eta ez diskriminatzeko eskubidearekin; hots, espainiar Konstituzioak aldarrikatzen dituen oinarriko eskubideekin. Irakur bedi, esaterako, Carta Magna-ko 15. artikulua: "*Guztiek daukate bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarriak ere (...)*". Esanguratsua da, zentzu honetan, Konstituzio Auzitegiak 1991. urtean emaniko Epaia<sup>4</sup>, non, besteak beste, adierazten baituen "*espainiar Konstituzioak bere 1.1 artikuluan ordenamendu juridikoaren balio gorenaren artean kokatzen duen berdintasuna (...) ez da 14. artikuluan jasotako aldarrikapen formalera mugatzen (...), baizik eta 9.2 artikulua ere lotzen da, zeinak botere*

---

1. *Emakumeen Kontrako Indarkeriari Erakundeek Emandako Erantzuna EAEn*. Arartekoaren Txosten Berezia. Vitoria/Gasteiz, 2004ko urtarrila.  
2. Iturria: Instituto de la Mujer, Barne Sailak emandako datuetan oinarrituz ([www.mtas.es/mujer/mcifras](http://www.mtas.es/mujer/mcifras) weborrian).  
3. EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurilaritza, 2003.  
4. Konstituzio Auzitegiaren 216/1991 Epaia, azaroaren 14koa. 1kus, bereziki, bere 5. oinarri juridikoa.

publikoak behartzen baitituen norbanakoen eta taldeen berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izateko baldintzak bultzatzea". Hain zuzen ere, Konstituzioko 9.2 artikulua xedatzen du botere publikoek kendu egin behar dituztela eskubide horiek benetakoak eta eraginkorrak izatea eragozten edo zailtzen duten oztopoak. Eta genero indarkeria oztopo da gizartean berdintasun, garapen eta bake helburuak erdiesteko.

Erasotzailea modu bortitz honetan jokatzera zerk bultzatzen duen aztertzen jarrita, hiru faktore nagusi aipatzen dituzte psikologoek: faktore psikiatrikoak batetik (erasotzailearen nortasuna, gaixotasun psikikoa, alkoholismoa zein droga menpekotasuna), faktore psikosozialak bestetik (bikote harremanak bizi dituen zailtasunak, belaualdiz belaunaldi ikusi edo igorritako indarkeria), eta faktore sozio-kulturalak azkenik (gizartearen egiturak eragin eta, are, onarturiko indarkeria)<sup>5</sup>.

Fenomeno honen larritasunaren aurrean, nazioarteak, arazoari erantzun global bat emateko beharraz arduratuta, hainbat txosten zein ebazpen onartzeari ekin dio azken urteotan; besteak beste, azpimarratzekoak dira emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazio Batuen 1993ko Adierazpena, Pekinen (Txina) 1995eko irailean izandako Emakumeari buruzko Nazioarteko Gailurreko Ebazpenak, Europako Parlamentuaren 1997ko uztailako Txostena, eta, berrikiago, Europako Parlamentuaren 803/2004/CE Erabakia, zeinaren bitartez haur, gazte eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta aurre egiteko programa bat finkatzen baiten 2004-2008 epealdirako. Ezin aipatzeke utzi, bestetik, 1999. urtea Genero Indakeriaren Aurkako Borrokaren Urte izendatu izana.

Horren guztiaren harian sortu da espainiar Estatuan aztergai dugun 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indakeriaren Aurrean Babesteko Neurriak jasotzen dituena<sup>6</sup>—eta, halaber, azken urteotan espainiar Zuzenbide positiboan gai honekin lotuta ikusten joan garen beste hainbat aldaketa eta berrikuntza<sup>7</sup>—. Bere sorrera prozesuaren nondik norakoari begirada bat botatzean, ikusiko genuke 2001eko abenduan kokatu beharra dagoela bere lehen mugarrira, Alderdi Parlamentario Sozialistak Diputatuen Kongresuan eskuartean

dugun Legearen Proposamen bat aurkeztu zutenekora<sup>8</sup>. Hurrengo urteko irailaren 10ean hasi ziren Kongresuko Osoko Bilkuran proposamena eztaibatzen, eta alderdi politiko guztiek eman zioten onespina, Alderdi Popularrak izan ezik. Tarte luzea igaroko zen geroztik, egitasmoak aurrera egin gabe, harik eta Rodríguez Zapatero Gobernura iritsi eta lozorro horretatik aterako zuela agindu zuen arte. Lege Organiko proiektuaren izapidetzarekin aurrera egiteko bidean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak prestaturiko txostena jaso beharra zegoen. Bada, 2004ko ekainaren 24an eman zen ezagutzera bertako Osoko Bilkurak genero indarkeriari buruzko egitasmoaren inguruan zeukan jarrera: hamar bokal aurreproiektuaren kontra azaldu ziren, eta bederatzi alde. Boto bakar baten aldearekin, proiektuarekiko kritiko zirenek lortu zuten gehiengoa. Hurrengo egunean bertan, Ministroen Kontseiluak Genero Indakeriaren Aurkako Neurrien Lege Proiektua onartu zuen, zeinak, gizarteko erakunde eta instituzioen ekarpenak aintzat hartuta, aldaketa ugari jasotzen baitzituen aurreproiektuarekin alderatuta. Diputatuen Kongresuan alderdi politiko guztiek aurkeztu zituzten emendakin partzialak<sup>9</sup>, 231 orotara, *Coalición Canaria*-k izan ezik. Eta, azkenik, Senatuko Osoko Bilkurak, emendakin horien guztien gainean eztabaidatzen aritu ostean, 2004ko abenduaren 12an aho batez onartu zuen lege proiektua. Handik hamar egunera, Diputatuen Kongresuaren behin betiko eta aho bateko onespina jaso zuen testuak, txalo artean.

Prozesu horren fruitua dugu Genero Indakeriaren Aurrean Babesteko Neurri buruzko Lege Organikoa—aurrerantzean, GILLO—, abenduaren 28koa, Estatuko Aldizkari Ofizialean hurrengo egunean bertan argitara emana. Indarrean sartzeko 30 eguneko *vacatio legis*—a aurreikusi bazaio ere, esan beharra dago bere IV. eta V. Tituluak—hots, biktimen babes eta segurtasunerako neurri judizialei buruzkoa lehena, eta emakumearen aurkako indakeriaren kontrako fiskalarena bigarrena— argitalpen egunetik sei hilabeteren buruan sartuko direla indarrean, 2005eko ekainaren 29an hain zuzen ere<sup>10</sup>.

Bere egiturari dagokionez, berriz, Atariko Tituluaz gain bost Tituluz osatua dago, eta, halaber, hogei Xedapen Gehigarri, bi Xedapen

5. FERRER PÉREZ, V.; BOSCH FIOL, E. "Violencia de género y misoginia: Reflexiones psicosociales sobre un posible factor explicativo". In: *Papeles del Psicólogo*, 75. zenb., 2000.
6. Gaztelaniaz, *Ley Orgánica de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género*.
7. Hala nola, 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, Hirietako Segurtasunerako, Etxeko Indakeriari Aurre Egiteko eta Atzerritarrek Gizarteratzeko Neurri Zehatzei buruzkoa; 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa, Kode Penalaren 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena; edota 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko Indakeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duena. Hauei guztiei, autonomia erkidego bakoitzak bere esku-duntzen esparruan onarturiko legeak erantsi behar zaizkie.
8. Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala, 2001eko abenduaren 21ekoa.
9. *Partido Popular* alderdiak 98 emendakin aurkeztu zituen, *Izquierda Unida*-k 44, *Bloque Nacionalista Gallego*-k 34, *Euzko Alderdi Jeltzalea*-k eta *Convergencia i Unió*-k 24, eta *Partido Socialista Obrero Español*-ek 4.
10. Ikus GILLOren 7. Azken Xedapena.

Iragankor, Xedapen Derogatzaile bat eta zazpi Azken Xedapen ditu.

Oro har, GILOk besarkatzen dituen eremuak asko dira, eta zabalak, besteak beste prebentzioa, hezkuntza, gizarte laguntza, indarkeriaren agerpenentzako zigorrak eta biktimei zuzenduriko laguntza bezalako alderdiak aurreikusten baititu. Azken hauen artean, gainera, hainbat eskubide aintzatesten dizkie indarkeriaren biktimei; hala nola, informazioa jasotzekoa, dohai-neko laguntza juridikoa eskatzekoa eta babes ekonomikoa eskuratzekoa. Genero indarkeriaren errealitateari ahalik eta erantzunik oso eta biribile-na emateko ahaleginetan, Lege Organikoak arau prozesalak biltzen ditu, instantzia berriak sortzen, eta, halaber, eragile judicial zein polizialentzako prestakuntza berezia aurreikusten du. Hori bakarrik ez: organo berririk ere jasotzen du, zeintzuen artean aipamen berezia merezi duten Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiak, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiek eta Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Fiskalak. Berehala ikusiko ditugu alderdi hauek guztiak.

## 2. Lege Organikoaren helburu nagusiak

Zein xederekin sortu da zehazki 1/2004 Lege Organikoa? Erantzuna, bere 1. artikuluan bertan aurkituko dugu: orokorrean, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Ez, ostera, edozein motako indarkeriari: Lege Organiko honen aplikazio eremuan sartzen diren erasoek berezitasun bat daukate subjektu aktiboaren alde-tik, honek, indarkeriaz jarduten duenak, biktimearen senarra edo senar ohia izan behar baitu, edo antzeko maitasunezko harremana daukan edo izan duen gizona, elkarbizitzen aritu edo ez. Beraz, bikote indarkeriari zuzendua dago eskuar-teko Lege Organikoa, nagusiki hauxe izaten dela-ko emakumeek jasaten duten indarkeria moten artean larri eta hedatuena. Ekintzari berari dago-kionez, bortxa, fisikoa ez ezik, psikologikoa ere izan daiteke. Hortaz, erasoak azalpen ezberdin ugari izan ditzake: sexu askatasunaren aurkako ekintza, mehatxuak, hertsapena, askatasuna arbi-trarioki kentzea, etab.

Esan beharra dago, bestetik, Lege Organiko honen espiritua *a priori* zein *a posteriori* jardutea dela; hots, indarkeriazko ekintza gertatu baino lehen eta ondoren. Izan ere, alde batetik, genero indarkeriari aurre hartzeari begira, eta etorkizunean horrelako kasurik jazotzea bera eki-diteko, hainbat neurri hartu beharra aurreikusten du gizarteko esparru anitzetan –hauen artean, arre-ta eta garrantzi berezia eskaintzen dio hez-

kuntzari–, baina, era berean, eraso gertatu dene-an, biktimari laguntzeko eta gaizkilea zigortzeko xedapenak ere biltzen ditu. Zentzu honetan, esan dezakegu Lege Organiko honek aldarrikapen zantzuak dauzkala, emakumeekiko errespetua sustatu eta bermatzearekin batera, beren eskubideak eraginkortasunez egikartzeko aukera bultzatu eta babestu nahi duelako.

Asmo nagusi horien gidaritzapean, Lege Organikoak helburu zehatzago batzuk zerrendatzen ditu, printzipio zuzentzaile gisa har ditzakegunak. Zerrenda luzea da, baina oso argia. Ikus ditzagun xederik azpimarragarrienak:

- Prebentzioari begira, hiritarrei zuzendutako sentsibilizazio neurriak areagotzea, eta botere publikoak hezkuntza, gizarte zerbitzu, osasun, publizitate zein hedabideen arloetan jarduteko tresna eraginkorrez hornitzea.
- Genero indarkeriaren biktimea diren emakumeen eskubideak kontsaktatzea –Administrazio Publikoen aurrean galdagarri direnak–, eta xede hori daukaten zerbitzuetara berandutzarik gabe, gardentasunez eta eraginkortasunez jotzeko aukera bermatzea.
- Lege Organikoak finkatzen dituen gutxieneko helburuak erdiesten diren bitartean, informazioa ematera, artatzera, larrialdietan erantzutera, babesa ematera eta osatzera zuzentzen diren gizarte zerbitzuak indartzea, eta udalerrri zein autonomia erkidego mailan dauden zerbitzuak eraginkortasunez koordinatzeko sistema bat ezartzea.
- Genero indarkeriaren biktimei eskubide ekonomikoak bermatzea, euren gizarteratzea errazteari begira.
- Indarkeriaren biktimei babesa emateko sistema integral bat eratzea, eta Estatuko Administrazio Orokorrak, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Ordezkaritza Bereziaren bidez, indarkeriaren biktimei babesa emateko politika publikoak bultzatzea.
- Instantzia jurisdikzionalak genero indarkeriaren biktimei ahalik eta babesik osoena ematearren, araudi penal eta prozesala indartzea.
- Genero indarkeria prebenitzeko eta erasotzaileek zigor egokia jasoko dutela ziurtatzeko, botere publiko guztien baliabide eta tresnak koordinatzea.

- Gizarte zibilean genero indarkeriaren aurka diharduten erakunde zein elkarten arteko lankidetzara sustatzea.
- Biktimak informatu, artatu eta babesteko prozesuan parte hartzen duten elkarte profesionalak espezializatzerara bultzatzea.
- Neurriak aplikatzeko orduan, zeharkakotasun printzipioa aintzat hartzea, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen behar eta eskariak kontuan har daitezen.

### 3. Genero indarkeriaren aurrean sentsibilizatu, prebenitu eta hautemateko neurriak

Prebentzio lana lehen mailara ekarri du Lege Organikoak. Indarkeria eragiten duten faktore anitzen artean bere eskuetan daudenetara joz, oso arreta berezia eskaini die gizartearen funtsezkoak diren eta biztanleengan eragin handia daukaten hiru esparruri: hezkuntzari, publizitate eta hedabideei, eta osasun arloari, alegia (I. Tituluko I, II eta III. atalak).

Horrela, beste inolako aurreikuspenetan sartu aurretik, Lege Organikoak lehenik eta behin xedatzen du Estatuko Gobernuak gizon zein emakumeei zuzendutako Sentsibilizazio eta Prebentzio Plan Nazional bat jarriko duela abian eskuarteko araua indarrean sartu orduko. Plan honen xedea, gizartearen balioen eskala berri bat txertatzea izango da; hots, oinarrizko eskubide eta askatasunak eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna errespetatzea, eta tolerantzia zein askatasuna elkarbizitzako printzipio demokratikoen esparruan egikaritzea.

Ikus dezagun zer xedatzen duen Lege Organikoak aipaturiko hiru esparruetako bakoitzeko prebentzio lanari dagokionez.

#### 3.1. Hezkuntza

Gizakiok hezkuntzaren bidez xurgatzen ditugu bizitzan baliagarri izango zaizkigun balio eta eredu nagusiak, eta hain zuzen ere horregatik aukeratu du Lege Organikoak hezkuntzaren bidea prebentzio lanari ekiteko, gaztetandik saihas ditzaten neska-mutilek arazo larri honetara bideratzen duten jarrerak. Horrela, espresuki jaso da espainiar hezkuntza sistemak, besteak beste,

balio zehatz batzuk bultzatu beharko dituela; hala nola, oinarrizko eskubide zein askatasunak eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna errespetatu beharra, gatazkak prebenitzea, eta, hauek sortzekotan, konponbide baketsuen bidez ebaztea. Gainera, erabateko berdintasuna erdiesteko oztopo diren eragozpenak ezabatzeko ahaleginak egin beharko dira.

Esanguratsua da GILOk arduraren berezia hartu duela generoen arteko berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritzen diren balioak hezkuntzaren maila guztietan pausoz pausoz txertatzen joateko, helburu eta ildo jakin batzuk finkatu baititu bakoitzerako (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, Helduentzako Hezkuntzan eta Unibertsitatean). Xede hori bete ahal izateko neurrien artean, aipatzekoa da hezkuntzan erabiltzen diren material guztiak berrikusi egingo direla, estereotipo sexistak edo diskriminatzaileak ezabatzeko asmoz.

Irakasleei ere manu zehatz batzuk zuzentzen dizkie Lege Organikoak, berdintasuna sustatzeko eta indarkeria prebenitzeko neurrien artean, ikasleei balioak transmititu ahal izateko behar bezala prestatuta egon daitezzen. Horrela, adierazten du hasierako prestakuntzako eta prestakuntza iraunkorreko planetan generoen arteko berdintasunari buruzko arlo zehatzak landuko dituztela, gaia irakasteko orduan ezagutza zein teknika egoiak izan ditzaten, hiru asmo nagusirekin: a) neska-mutirik oinarrizko eskubide eta askatasunak zein berdintasuna errespetatzen dituen giroan hezteak; b) ikasleak gatazkak prebenitzeko eta hauek modu baketsuan konpontzeko hezteak; d) familia inguruan gertatzen diren indarkeria kasuak garaiz antzematea.

#### 3.2. Publizitatea eta hedabideak

Bi printzipio garrantzitsu bat jasotzen ditu GILOk hedabideei zuzendutako atalean. Batetik, gizon eta emakumearen arteko berdintasuna babestu eta sustatu beharko dutela, eta euren arteko diskriminazio oro baztertu; eta, bestetik, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa emateko orduan, betiere objektibotasuna gordez, biktimen eta beren seme-alaben giza eskubide, askatasun eta duintasuna errespetatu beharko dituztela.

Ohar moduko adierazpen bat ere jasotzen du Lege Organikoak bere I. Tituluko II. Atalean: Publizitatearen Lege Orokorrean eragorri<sup>11</sup>, ema-

11. Publizitateari buruzko 34/1988 Legea, azaroaren 11koa. Ikus, bereziki, bere II. Titulua, legez kanpoko publizitatea arautzen duena.

kumearen irudia laidotu edo diskriminatzen duen publizitate oro legez kanpokoak izango dela xedatzen du. Emakumearen irudia laidotzen edo diskriminatzen duen iragarkiren baten kasua emango balitz, Lege Organikoak iragarki hori bertan behera uzteko eskariarekin Auzitegietara jotzeko subjektu legitimatuak zeintzuk diren ere zehazten du; hots, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Ordezkaritza Berezia, Emakumearen Institutua edo autonomia erkidego bakoitzean duen organo baliokidea, Ministerio Fiskala, eta emakumearen interesak defendatzera zuzentzen diren elkarteak.

Ikus-entzunezko hedabideek oinarritzko eskubideen babes eta zaintzari buruzko araudia zorrozki betetzen dela ikuskatu beharko dute Administrazio Publikoek, eta beharrezko diren neurriak hartuko dituzte dagozkien obligazioak betetzen dituztela bermatzeko, eta emakumeari Konstituzioan jasotako printzipio zein balioekin bat datorren trataera emango zaiola ziurtatzeko.

### 3.3. Osasun arloa

Prebenitzeko xedeari jarraiki, Osasun arloan eskudun diren administrazioek genero indarkeria kasuak lehenbailehen antzemateko jarduerak sustatu eta bultzatuko dituzte sendagileen artean, eta beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak proposatuko dituzte osasunaren sektorean indarkeria mota honen aurkako borrokari ahalik eta erantzunik egokiena emateko. Asmo horrekin, sentsibilizazio eta prestakuntza programak jasoko dituzte osasun arloan diharduten langileek. Edonola ere, prebenzioaren gaineko ikuspegia, jada lanean ari diren profesionaleri ez ezik, ikasle direnei ere zabaldu nahi zaie; zentzu honetan, osasun arloarekin lotuta dauden diplomatura eta lizentziaturetako irakaskuntzan, genero indarkeria lehenbailehen antzemateko eta biktimak lagundu zein babestera zuzendutako eduki bereziak txertatuko dira.

Bestalde, Lege Organiko hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean –2006ko urtaririlaren amaiera baino lehen beraz–, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren baitan genero indarkeriaren aurkako Batzorde bat eratu beharra finkatzen du GILOk, zeinak, babes teknikoa emateaz gain, osasun arlorako neurrien plangintza bideratuko baituen. Batzorde hau, arlo honetan eskuduntzak dauzkaten autonomia erkidego guztietako ordezkariek osatuko dute, eta bere jardueraren zein sumatzen dituen beharren berri emango duen txosten bat prestatu beharko du urtero, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiari eta Lurraldearteko Kontseiluaren Osoko Bilkurari igorriko diena.

## 4. Biktimen eskubideak

Hasieran aipatu dugun bezala, GILOk, prebenziozko *a priori* alderdiez gain, *a posteriori* jarduteko neurriak ere jasotzen ditu; hots, indakeriazko eraso gertatu ostean biktima artatzeko. Emakume hauei eskubide sorta zabala aintzatesn die Lege Organikoak bere II. Tituluan zehar, lau taldetan sailka ditzakegunak: informazioa, gizarte laguntza eta dohaineko laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea; laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak; funtzionario publikoen eskubideak; eta eskubide ekonomikoak. Esan beharra dago eskubide hauek guztiak *erga omnes* aplikatzekoak direla emakume orori, bere sinesmen, arraza, erlijio zein gisa honetako beste edozein inguruabarren gainetik, inolako salbuespenik gabe.

### 4.1. Informazioa, gizarte laguntza eta dohaineko laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea

Genero indarkeriaren biktimek informazio osoa jasotzeko eskubidea daukatela esatean, Administrazio Publikoen zerbitzu, organismo edo bulegoen bitartez beren egoera pertsonalari egokitutako informazio zein aholkularitza jasotzeko eskubidea daukatela adierazi nahi da. Hala, modu ulergarrian, zehaztuko zaie zein eskubide, zerbitzu eta laguntza dauzkaten beren eskura, eta non. Izan ere, informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzearekin, emakume hauei Konstituzioan jasotako eskubideak (osotasun fisiko eta psikikoa, askatasun eta segurtasuna, berdintasuna, sexua dela-eta ez diskriminatzea) eraginkor eta egiazko bihurtzeko bidea irekitzen zaie.

Aurrekoarekin lotuta, genero indarkeriaren biktimek gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea daukate; hots, artatzera, larrialdietan jardutera, babesa ematera eta berrosatzera zuzentzen diren gizarte zerbitzuen hartzaile izatekoa. Administrazio Publikoak, genero indarkeriaren biktimak artatzeko orduan, zerbitzua etengabe eta beranduntzarik gabe emateko printzipioei jarraitu beharko die. Lege Organikoak, bestalde, erakunde publikoei alderdi jakin batzuk estali beharra ezartzen die, nolabait biktimen gabezia eta hutsune guztiak estaliko lituzketenak: informazioa ematea, laguntza psikologikoa eskaintzea, gizarte babesa ematea, emakumeak bere eskubideen gainean egindako erreklamazioen segimendua egitea, familia unitatearen hezkuntza bideratzea, berdintasunean hezteko eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko trebeziak garatzeko prestatzea, eta emakume hauek lan munduan sartzeko prestatu eta laguntzea. Aipatu beharra dago gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubide hau biktimaren zaintzapean dagoen edo dau den adingabeei ere zabaltzen zaiela.

Zerbitzu hauek guztiak eskaintzera zuzentzen diren erakundeek elkarlanean eta modu koordinatuan jardungo dute Segurtasun Kidegoarekin, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren epaileekin, osasun zerbitzuekin, eta biktimei laguntza juridikoa ematen dieten erakundeekin, eta hauetako edozeinek jo ahal izango du epailearengana premiazko neurriak hartzeko eskariarekin.

Bestetik, auzitan aritzeko nahikoa baliabiderik ez dutela egiaztatzen duten emakumeek, dohaineko laguntza juridikoa jaso ahal izango dute. Dohaineko Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legeak, urtarrilaren 10ekoak, xedatutakoaren arabera, genero indarkeriaren biktimek abokatuen defentsa eta prokuradoreen ordezkaritza dohainik jasotzeko eskubidea izango dute jasandako indarkeriazko erasoarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden prozesu zein prozedura administratiboetan. Edonola ere, dohaineko laguntza juridikoa jasotzeko eskaera luzatzen duten biktima guztiak berehalakoan emango zaie aipaturiko zerbitzua, eta gerora frogatuko balitz ez dituztela dohaineko laguntza juridikoa jaso ahal izateko baldintza guztiak betetzen, itzuli egin beharko lituzkete sortutako gastuak.

Abokatuen Elkargoek, halaber, beharrezko diren neurriak hartuko dituzte genero indarkeriaren inguruko prozeduretan ofiziozko abokatua premiaz izendatzeko.

## 4.2. Laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak

1/2004 Lege Organikoak eskubide sorta zabala aintzatesten die lan arloan genero indarkeriaren biktima izandako emakumeei; hala nola, lanaldia murrizteko edo berrantolatzeke, mugikortasun geografikorako, lantokia aldatzeko, lan harremana eteteko eta lan kontratua bertan behera uzteko –azken bi kasuetan, langabezia egoerara igaroko litzateke emakumea–. Hori guztia, betiere, Langileen Estatutuan<sup>12</sup> jasotako baldintzetan.

Biktima funtzionarioa izatekotan, lanaldia murriztu edo berrantolatzeke, mugikortasun geografikorako eta eszedentziarako eskubidea izango du, bere legeria bereziak zehaztutako baldintzetan.

Esan beharra dago Gobernuak nolabait saritu egin nahi izan dituela genero indarkeriaren biktimak ordezkatzeko interinitate kontratuak formalizatzen

dituzten enpresak; hain zuzen ere horregatik aurreikusten du GILOk Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko enpresa kuoten %100eko hobaria jasotzeko eskubidea izango dutela ordezkatzeko langilearen etenaldi guztian zehar, edota sei hilabetez mugikortasun geografiko edo lantoki aldaketaren kasuan. Emakumeak, lanera itzultzen denean, lan kontratua eten zeneko baldintza berberetan jarraituko du.

Gainera, justifikatuta egongo da genero indarkeriak sorturiko egoera fisiko edo psikologikoaren ondorioz lanera ez azaltzea, edo berandu joatea.

Biktima bere kontura ari baldin bada lanean, eta erasoaren ondorioz lana uztera behartuta dagoenean, sei hilabetez eten egingo zaio kotizatzeke beharra, eta denbora horretan altan egongo balitz bezala agertuko da.

Atal honetan arautzen diren eskubide hauen babesa jasotzeko, genero indarkeriaren biktimak epailearen agindua erakutsi beharko du.

## 4.3. Eskubide ekonomikoak

Genero indarkeriaren biktimak lanbide arteko gutxieneko soldataren %75a baino gutxiagoko errenta jasotzen badu hilean, diru-laguntza bat jasoko du, ordainketaldi bakar batean emango zaiona. Betiere, biktimaren adina, prestakuntza gabezia edota gizarte inguruabarrak kontuan hartuta, enplegu bat lortzeko zailtasun bereziak izango dituela presumitzen bada. Diru-laguntza horren zenbatekoa, langabetuek sei hilabetez zehar jasotzen dutena izango da, eta biktimak %33ko edo gehiagoko minusbaliotasuna baldin badu, hamabi hilabeteri dagokiena. Diru kopuru hauek guztiak Estatuko Aurrekontu Orokorretatik jasoko dituzte, eta bateragarriak izango dira Bortxazko eta Sexu Askatasunaren Delituen Biktimei Laguntzeko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako guztiekin.

Bestalde, emakume hauek lehentasuna izango dute etxebizitza babestuak eskuratzeko eta zaharren egoitzetan sartzeko orduan.

## 5. Erakundeen babesa

Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren baitan, Gobernuaren Ordezkaritza Berezi baten sorrera aurreikusten du 1/2004 Lege Organikoak, zeinaren ardurak izango baitiren Gobernuak ema-

12. 1/1995 Errege Dekretu Legegilea, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duena (1995eko martxoaren 29ko BOEn argitaratua).

kumeen aurkako indarkeriaren inguruan garatu beharreko politika publikoa formulatzea, eta arlo honetan burutu beharreko ekintza oro koordinatu zein bultzatzea. Ordezkaritza honetako titularrak, gainera, emakumeen eskubide zein interesak organo jurisdikzionalen aurrean defendatzeko eskuduntza izango du<sup>13</sup>.

Horrez gain, aipaturiko Ministerio berberaren baitan Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia eratuko dela jasotzen du GILOK, non parte hartuko baituten autonomia erkidegoek, entitate lokalek, gizarteko eragileek, kontsumitzaile zein erabiltzaileen elkarteek, beren jarduera eremua Estatu osora zabaldua daukaten emakumeen erakundeek, eta enpresa erakunde zein sindikaturik esanguratsuenek. Behatoki honek zeregin zabalak izango ditu; besteak beste –eta genero indarkeriarekin lotuta betiere–, aholkularitza lanak egitea, erakundeen arteko lankidetzak sustatzea, txosten eta azterlanak prestatzea, eta jarduteko proposamenak luzatzea. Gainera, urtero-urtero txosten bat igorri beharko die Estatuko zein autonomia erkidegoetako Gobernuak, adieraziz nolako bilakaera izan duen emakumeen aurkako indarkeriak, zein zigor xedapen aplikatu diren, eta biktimak babestearren hartutako neurriek zenbaterainoko eraginkortasuna izan duten.

Beste alde batetik, unitate espezializatuak sortuko dira Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen baitan, hala genero indarkeria prebenitzeko, nola neurri judizialak betearazteko. Beren jardunean, gainera, kontuan hartu beharko dute Genero Indarkeriaren Biktimak Babesteko Organo Judizialekin Koordinatuta Jarduteko Protokoloa<sup>14</sup>.

## 6. Babes penala

Lege Organikoko IV. Titulua mintzo zaigun genero indarkeriaren biktimek jasoko duten babes penalaz. Esan beharra dago GILOK, indarrean sartzearekin, Zigor Kodeko<sup>15</sup> hainbat xedapen aldarazi dituela<sup>16</sup>, guztiak ere genero indarkeriaren kasuak positibatzeko. Horrela, subjektu pasibo hauek kontuan hartuz, Zigor Kodeak jada tipifikatu eta zigortu egiten ditu bai lesioak, bai tratu txarrak, bai mehatxuak, bai hertsapena, bai irainak.

Esaterako, lesioez mintzo den Zigor Kodeko III. Tituluak, subjektu aktiboari ezarri beharreko zigorra sei hilabete eta hiru urte bitartekoa izango dela adierazten du, eta jarraian, 148. artikuluan, bertan zerrendatzen diren inguruabarrereko bat emanez gero, zigor hori bi urtetik bost urtera arteko presoaldiarekin zigortu ahal izango dela. Bada, aipaturiko artikulua orain arte hiru supostu astuntzaile aurreikusten baldin bazituen (erasoaldian lesionatuaren bizitza edo osasun fisiko edo psikikorako arriskutsuak diren armak, tresnak, metodo edo formak erabiltzea; modu basatian jardutea; eta biktima hamabi urtetik beherakoa edo ezgauza izatea), orain, GILOK ekarritako berrikuntzekin, beste bi supostu erantsi zaizkio artikuluari: batetik, biktima emaztea edo emazte ohia izatea, edota erasotzailearekin pareko maitasun harremana duena edo izan duena, elkarbizitzen aritu edo ez, eta, bestetik, biktima erasotzailearekin bizi den pertsona bereziki kaltebera izatea. Modu berean, mehatxuak arautzen dituen Zigor Kodeko 171. artikuluari hiru atal berri erantsi zaizkio, aipagarriena izanik zigorgarria izan den emaztea edo emazte ohia, edota neskalaguna edo neskalagun ohia, mehatxatzea.

## 7. Babes judiziala

Lege Organikoan bereziki garatuta dagoen alderdia da genero indarkeriaren biktimek epaitegi eta auzitegien aldetik jasoko duten babesari dagokiona. Bosgarren Tituluan xedaturiko gai hau, sarreran bertan adierazi dugun bezala, ekainaren 29an da indarrean sartzekoa. Ikus ditzagun bere ekarpen nagusiak.

### 7.1. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak

Sistema judizialaren baitan, epaitegi berri batzuk sortuko direla aldarrikatzen du 1/2004 Lege Organikoak: Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak, alegia. Beraz, aldatu egiten da Demarkazio eta Planta Judizialaren Legean definitutako planta judiziala. Gisa honetako 16 epaitegi zabalduko dira guztira espainiar Estatu osoan barna<sup>17</sup>, hiriotan zehazki: Granadan, Málaga, Sevillan, Palma de Mallorcan, Las Palmas de Gran Canaria, Santa Cruz de

13. Lege Organikoak erregelamendu batera eragortzen du ordezkaritza honen maila eta zereginak arautzeko. Aurreikuspen horren harian onartu zen, hain zuzen ere, 237/2005 Errege Dekretua, martxoaren 4koa (2005eko martxoaren 8ko BOEn argitaratua).
14. Gaztelaniaz, *Protocolo de Actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y de Coordinación con los Órganos Judiciales para la Protección de las Víctimas de Violencia Doméstica y de Género*, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduren Jarraipen Batzordeak 2004ko ekainaren 10ean onartua.
15. Zigor Kodea, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa.
16. Zehazki, Zigor Kodeko artikulua hauen edukia da aldatzen dena: 83. artikuluko 1. ataleko 2. paragrafoa; 84. artikuluko 3. atala; 88. artikuluko 1. ataleko 3. paragrafoa; 148. artikulua; 153. artikulua; 468. artikulua eta 620. artikulua.
17. Epaitegi hauek martxoaren 4ko 233/2005 Errege Dekretuaren bidez sortu dira. Funtzionatzen hasteko data, berriz, 1037/2005 Aginduak, apirilaren 19koak, finkatzen du, zehaztuz urte bereko ekainaren 29an hasiko direla lanean.



Tenerifen, Bartzelonan (2), Alacanten, Valentzian, Madrilan (2), Murtzian, Gasteizen, Donostian eta Bilbon.

Aurreikuspen honen jatorria, Demarkazio eta Planta Judizialaren Legean<sup>18</sup> kokatu beharra dago, bertan adierazten baita Justizia Administrazioak etengabe joan behar duela bere funtzionamendua hobetzen, egokitzen eta hiritarrengana hurbiltzen. Eta, hain zuzen ere, gizartearen puri-purian dagoen arazoari erantzun egokiagoa emateko xedeari erantzuten dio Epaitegi berri hauen sorrerak. Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoari (aurrerantzean, BJLO), beraz, hainbat artikuluko zein atal berri erantsi zaizkio. Epaitegiok, aurrerantzean 87 bis izango den artikuluko berriaren aurrekusten dira, zeinak zehazten baituen barruti bakoitzean Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegi bat edo gehiago egongo direla. Epaitegi hauek barrutiaren hiriburuan izango dute egoitza, eta haren lurralde osora zabalduko dute beren eskumena.

Barruti judizial batzuetan, daukaten lan zama kontuan izanik, ez da komenigarritzat jotzen Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegi eskusiboak zabaltzea. Kasuotan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Gobernu Aretoen txostena jaso ondoren, gaia lehen auzialdi eta instrukzioko epaitegien esku uztea erabaki ahal izango du, dagokien ordenako auzien osagarri. Lehen auzialdi eta instrukzioko epaitegi bakarra daukaten barruti judizialetan, berriz, epaitegi hauek izango dira genero indarkeriarekin lotutako gaiez arduratuko direnak.

Beren eskuduntzak 44. artikuluan zehazten ditu Lege Organikoak, aurrerantzean BJLOko 87 ter berria izango denean alegia. Funtsean, arlo bi bereizi behar dira: ordena penala eta ordena zibila. Lehenari dagokionez, Epaitegi hauek, Prozedura Kriminaleko Legean<sup>19</sup> finkaturik dauden prozedurei jarraiki, ebatziko dituzte giza hilketak, abortuak, lesioak, umekiari egindako lesioak, askatasunaren aurkako delituak, osotasun moralaren aurkako delituak, sexu askatasunaren aurkako delituak eta indarkeria edo larderiez egindako beste edozein delituren aurrean erantzukizun penala eskatzeko prozesuak, betiere subjektu pasiboa edo biktima erasotzailearen emaztea bada edo izan bada, edota, elkarbizitzen egon edo ez, antzeko maitasunezko lotura duen edo izan duen emakumea. Barne hartzen ditu, halaber, emazte edo emakumearen seme-alaben aurka egindako erasoak ere.

Ordena zibilean, berriz, Prozedura Zibileko Legean<sup>20</sup> xedatutakoari jarraituko dio Epaitegiak bere jardunean, eta zehazki honako auziak ebatziko ditu: filiazio, aitatasun zein amatasuna; ezkontzaren deuseztasuna, banantze eta dibortzioa; guraso-seme-alaba harremanak; familiari eragiten dioten neurriak; adingabeen zaintza eta babesa; adopzioaren gaineko onespina eta adingabeak babesteko ebazpen administrazioen aurkakoak.

## 7.2. Biktimen babes eta segurtasunerako neurri judizialak

Lege Organikoak, epailearen aukeran uzten duen neurri sorta bat biltzen du bere V. Tituluko IV. Atalean, genero indarkeriaren biktimak babesteko eta beren segurtasuna bermatzeko xedearekin. Gaineratu beharra dago zerrendatzen dituen neurri guztiak bateragarriak direla epaileak edozein prozedura zibil zein penaletan har ditzakeenekin.

GILOk jasotzen dituen neurri judizial babesleak honakoak ditugu: genero indarkeriarekin lotutako jarduera zein prozeduretan biktimen nortasuna babestea –horretarako, epaile eskudunak, ofizioz edo alderdien eskariz, bistak ateak itxita eta jarduerak isilpean garatzeko erabakia hartu ahal izango du–; inputatuak biktimarekin elkarbizitzen egon den etxebizitza nahitaez uztea eta bertara itzultzea debekatzea; biktimarengana zein bere etxebizitza edo lantokira ez hurbiltzeko agintzea; bere manupean dituen adingabeekiko guraso agintea, zaintza edo babespea esekitea; bere ondorengoak ikusteko eskubidea esekitea; eta armak eduki, eraman eta erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hauetako edozein hartzeko, auto motibatu bat eman beharko du epaileak –azken batean, eskubideak murriztera bitator–, eta bertan argi adierazi beharko dira bai neurri zehatz hori hartzeko beharra eta bere proportzionaltasuna.

Neurri hauek guztiak prozesuak irauten duen bitartean bakarrik ez, baizik eta behin betiko epaia eman ostean ere mantendu ahal izango dira, dagozkion helegiteak izapidatzen diren bitartean.

## 7.3. Emakumearen aurkako Indarkeriaren Fiskala

Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duen 50/1981 Legearen 18. artikuluari atal berri bat erantsiko zaio, Emakumeen aurkako

18. 38/1988 Legea, abenduaren 28koa.

19. 1882ko irailaren 14koa.

20. 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa.

Indarkeriaren Fiskalaren figura berria jaso dezan. Eskuartean dugun Lege Organikoko 70. artikulua-  
ren arabera, Estatuko Fiskal Nagusiak izendatuko  
du, Kontseilu Fiskala entzun ostean, eta nagusiki  
zeregin hauek izango ditu bere esku: Ministerio  
Fiskalaren Estatutu Organikoak bere 5. artikuluan  
zehazten dituen eginbideak bultzatzea; genero  
indarkeriarekin lotuta dauden eta Estatuko Fiskal  
Nagusiaren iritzian esangura berezia daukaten  
prozesu penaletan parte hartzea; Estatuko Fiskal  
Nagusiaren eskuordetzaz, BJLOko 87 ter 2 artiku-  
luan jasotako prozesu zibiletan parte hartzea;  
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Sailen jardue-  
ra gainbegiratu eta koordinatzea; eta genero  
indarkeriarako Fiskaltzen jarduera irizpideak koor-  
dinatzea. Horrez gain, Ministerio Fiskalak genero  
indarkeriaren arloan jarraitutako prozedura eta  
ekintzei buruzko txosten bat prestatu eta aurkeztu  
beharko die sei hilabetero Estatuko Fiskal  
Nagusiari eta Kontseilu Fiskalari.

## 7.4. Xedapen gehigarriak

GILOk hogeii xedapen gehigarri jasotzen  
ditu guztira, eta, tarte luzetan horretan, espainiar  
Estatuan indarrean diren hainbat legeriatan egini-  
ko aldaketak zerrendatzeri ekiten dio batez ere.  
Izan ere, esana dugu Lege Organiko honek arau-  
tzen duen gaiak adar ezberdin ugari ukitzen ditue-  
la, eta arlo ugariara zabaltzen dituela bere  
aurreikuspenak. Zehazki, honako legeria hauetan  
eragin ditu gizon-emakumeen arteko berdintasuna  
bermatzeko xedeari erantzuten dioten aldaketak:  
Hezkuntza Eskubideari buruzko 8/1985 Lege  
Organikoan; Hezkuntza Sistemaren Araubide  
Orokorrari buruzko 1/1990 Lege Organikoan;  
Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege  
Organikoan; Publizitatearen 34/1988 Lege  
Orokorrean; Langileen Estatutuaren Legean,  
1/1995 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartu  
zen Testu Bateginean; Gizarte Segurantzaren  
Lege Orokorrean, 1/1994 Errege Dekretu  
Legegilearen bidez onartu zen Testu Bateginean;  
Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurrien 30/1984  
Legean; Botere Judizialaren 6/1985 Lege  
Organikoan; eta Prozedura Kriminaleko Legean,  
1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuz arautua.

## 8. Ondorio gisa

Genero indarkeriaren larritasunaz jabetuta,  
eta gizartean alarma gorria piztuta zegoela ikusi-  
rik, Zapateroren Gobernuak gai honen inguruko  
lege proiektu bat egiteko konpromisoa hartu zuen.  
Eta, gisa honetako gaia lantzean, nahitaez ukitu  
behar ziren gizarteko hainbat eta hainbat sektore.  
Genero indarkeriari *ex post facto* erantzun beha-  
rra dago, biktimari laguntza fisiko zein psikologia  
emanez, eta beldur zein noraezeko egoeran bide-

ratzeko zerbitzua, baina osasun arloaz gain,  
enplegu zein gizarte segurantza bezalako alderdik  
ere aintzat hartuko zituena. Alde batetik, alderdi  
horiei guztiei euskarri sendo eta egoki bat eman  
behar zitzaie, bateratu eta koordinatua, organi-  
grama eta fondo batez hornitua. Eta, bestetik, hori  
bezain garrantzia, edo baita gehiago ere, preben-  
tzio lana zegoen, genero indarkeriaren sorlekura  
jo eta errotik ezabatzen.

Egin beharreko galdera ondo formulatu  
beharrekoa zen, bere funtsezkotasuna tarteko:  
zerk du gure gizarteko gizon-emakumeengan  
aurreiritzi zein balioak transmititzeko ahalmena?  
Erantzunean, horra hor bi eremu erraldoi eta bote-  
retsu: hezkuntzak eta publizitateak. Esan beharrik  
ez dago sendi eremutik at, eskolan xurgatzen  
dituztela gure neska-mutilek euren izaera osatuko  
duten balio zein ikuskerak, eta erabat inguratzen  
gaituzten hedabideek igorritako mezu publizitario-  
ek, kontzienteki batzuetan eta oharkabean beste-  
etan, jarrera zein jokaerak taxutzera eramaten  
dutela. Urtez urte hainbat erakunde osatzen eta  
argitara ematen joaten den datuen koadroek era-  
kutsiko digute zenbaterainoko eraginkortasuna  
daukaten aplikatzen hasiak diren programa eta  
jarduerak.

Abian jartzen den egitasmo orok bezala,  
honek ere bere denbora eskatuko du emaitzetan  
aldaketarik islatzeko; epe ertain-luzera begira itxa-  
ron beharko, beraz. Iritsiko al da beste hainbat eta  
hainbat arlotan horrenbeste aurrerapauso emana  
den gizakiak gisa honetako legeen beharrik izan-  
go ez duen eguna!